

## **218. ALDIZKARIA - 2011ko azaroaren 3a**

### **2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

#### **2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK UHARTE**

##### **Hilerriaren ordenantza. Behin betiko onespena**

Uharteko Udalak, 2011ko abuztuaren 25ean egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Udal hilerria arautzen duen ordenantza. Hura 2011ko 181. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 13an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, Nafarroako Toki Araubidea gaurkotzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betikoz onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Uhartan, 2011ko urriaren 14an.-Alkatea, Iñaki Crespo San Jose.

#### **ORDENANTZA, UHARTEKO UDAL HILERRIKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUENA**

##### **ZIOEN AZALPENA**

Kontuan harturik, batetik, Udal hilerriaren ordenantza (Udal Hilerriaren Erregelamendua) 1902ko azaroaren 9an onetsi zenetik iragan den denbora eta, bertetik, 1997ko 69. Nafarroako Aldizkari Ofizialean ekainaren 9an argitaraturiko araudi osagarria, agerian jarri duena izaera teknikoko premia berriei konponbidea emateko eta alor honetan sortu diren gizarte premia berriei begiratzeko beharra.

Hileta-Osasunari buruzko Erregelamendua onesten duen urriaren 15eko 297/2001 Foru Dekretuan ezarritakoari begiraturik, Uharteko udalerriko hilerriko zerbitzuaren arauketa berrikusteari lotzeko arrazoi aski dagoela kontsideratzen da.

#### **I. TITULUA**

#### **I. KAPITULUA**

## **XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. Zerbitzuaren xedea eta edukia.

1.1.-Uharteko udalerrian hilerriko udal zerbitzu publikoa arautzea da arau honen xedea.

1.2.-Zerbitzuak bere gain dituen prestazioak honako hauei dagozkie: hilerriaren antolaketa, banaketa eta administrazioa, baita haren zainketa, garbiketa eta mantentzea ere, eta orobat zaintzea eskubide eta eginbeharrak, bai erabiltzaileenak bai hilobi edo hobi, horma-hilobi edo bertzelako ehorzketa unitateen gainean edozein eskubide mota dutenenak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.j) artikuluan eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 4. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

1.3.-Nafarroan hilotzen gaineko osasuna arautzen duen urriaren 15eko 297/2001 Foru Dekretua aplikatuko da ordenantza honetan arautzen ez den orotan (bereziki 40. artikulua eta ondokoak).

2. artikulua. Izena. Ukipen demaniala.

2.1.-Uharteko udal hilerria katastroko 2. poligonoko 1189. lurzatian dago.

2.2.-Udal hilerria kokaturik dagoen lurra Udalaren ondasun publikoa da, eta ehorzketa zerbitzuetarako da; beraz, haren gainean onartzen diren okupazioak edo erabilerak kontzesio administratiboen kalifikazio juridikoa dute, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduaren 3.3, 97. eta ondoko artikuluetan, urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuan jasota baitago.

3. artikulua. Definizioak.

Ordenantza honen ondorioetarako, hilotzak, giza hondarrak eta gorpuzkiak dira urriaren 15eko 297/2001 Foru Dekretuaren 3. artikuluan definitzen direnak, eta hobiak, horma-hilobiak, panteoiak eta kolunbarioak, berriz, 44 eta 45. artikulukoak.

4. artikulua. Zuzendaritza, gobernua eta administrazioa.

4.1.-Uharteko Udalarri dagozkio instalazioaren zuzendaritza, gobernua eta administrazioa, hori guztia ukatu gabe lege dagokion agintari judizial, gobernuko edo osasunekoaren esku hartze administratiboa.

4.2.-Aitzineko atalean definitu diren eskumenak honela zehazten dira:

a) Zerbitzuen kudeaketa, administrazioa eta antolaketa.

b) Hilobi, horma-hilobi eta bertze ehorzketa unitateen eraikuntza, halakorik bada, banaketa eta kontzesioa.

c) Hilerriko instalazioak zaindu, garbitu eta egokitzea.

d) Hilerrian jarduketak egiteko edozein motatako lizentziak ematea.

e) Dirua jasotzea ehorzketa unitateen gainean ehorzketa eskubideak emateagatik eta ordenantza honetan arautzen diren nolana hiko lizentziak emateagatik, edo bertze edozein arrazoirengatik komenigarri ikusten bada eta Udalbatzak arautzen badu.

f) Berea nahiz pribatua izanik, erraustegia eta hilotzen eta gorpuzkien errausketa arautzea.

g) Hilerriko zaintza eta mantentze zerbitzuak, baita zerbitzu horien funtzionamendu egokirako behar den bertze edozein.

## **II. TITULUA**

### **INSTALAZIOAK ETA SAILAK**

## **I. KAPITULUA**

### **XEDAPEN OROKORRAK**

5. artikulua. Instalazioak eta sailak.

Nafarroako Foru Komunitatean Hileta-Osasanari buruzko Erregelamendua onesten duen urriaren 15eko 297/2001 Foru Dekretuaren 43. artikuluan xedatuari jarraikiz, Udal honek honako hauek izanen ditu, hilerriko zerbitzua egiteko bai zuzenean bai, legeak uzten duenetan, hirugarren pertsonetik hitzarmenaren bidez:

-Hilobiendako eremua (ehorzketa unitatea) edo hura eraikitzeke lur aski, espazioa erreserbatuik neurri bereziak dituzten hilobietarako.

-Giza hondarrak ehorzkeko aldea.

-Kolunbarioa, errausketatik heldu diren errauskak dauzkaten kutxatilik gordetzeko.

-Hezurtegi orokorra, gorpuzkiak ateratzen direneko hondarrak biltzeko.

-Gorputegitako lokala, gutierrez ere bi sail izanen dituena, beren artean lotuak, bat behin-behineko gorputegitako eta bertzea jendearendako sarrera libreduena.

6. artikulua. Eremuen banaketa.

6.1.-Hilerria eremuka banatu da, eta haietan panteoiak, horma-hilobiak eta kolunbarioak kokatzen dira, bakoitzaren kokaeraren araberrako zenbakiei jarraikiz.

6.2.-Hilerria handituz gero ere, banaketak aitzineko puntuan ezarritakoari jarraituko dio.

7. artikulua. Hilerriko erregistro liburua.

Uharteko Udalak hilerriko erregistro liburua izanen du, betiere eguneratua, ordena kronologikoari jarraikiz ondoko jakingarri hauek jasotzeko:

- a) Zenduaren eta heriotzaren inguruko datuak: izen-deiturak, IFZ, helbidea, heriotza gertatu zeneko tokia, data eta ordua; orobat jasoko da hilotza I. taldekoa edo II. taldekoa ote den.
- b) Familiaz edo izatez zenduari loturiko eskatzailearen datuak: izen-deiturak, IFZ eta helbidea.
- c) Ehorzketaren datuak: ehorzketa unitatearen kokalekua eta haren ezaugarriak; ehorzketaren data eta ordua, eta ehorzketa eskubidearen titularraren baimena.
- d) Errausketaren datuak, errautsak zer erraustegitatik heldu diren, haren erregistro liburuko datuak bilduko dituen.
- e) Gorpuzkiak txikitu, atera eta aldi baterako edo behin betikoz lekualdatuz gero, hori ere jasoko da, zer egunetan egin diren, zer tokitatik eta zein tokitara adierazirik.
- f) Giza hondarrak izanez gero, giza gorputzaren alderdi anatomikoa jasoko da, baita, norenak ziren, haren izen-deiturak, IFZ, helbidea, eta hil zeneko tokia, data eta ordua.

## II. KAPITULUA

### **INSTALAZIOEN ERABILERA**

8. artikulua. Udal instalazioak erabiltzeko arauak.

Udal hau arduratuko da esparruaren barnean ordena ezartzeaz eta errespetu egokia eskatzeaz, arau hauek betearazirik:

1. Alkatetzaren ebazpenaren bidez hilerriko zerbitzuen ordutegiak finkatuko dira, negukoak nahiz udakoak, baita bisitak egiteko eta jendeari arrera egiteko ordutegiak ere. Irekitzeko eta ixteko ordutegia guztiek ikusteko moduko tokian paratuko da, hilerriko sarreran.
2. Bisitariak, esparruari zor zaionez, errespetuz jokatu dute betiere; hala ez bada, Uharteko Udalak eskura dituen legezko neurriak hartuko ditu esparrutik bidaltzeko arau hau betetzen ez duena, ezartzen ahal diren zehapenez aparte.
3. Debeku da hilerriaren barnean edozein merkataritza motatan eta edozein propaganda motatan aritzea.
4. Erabiltzaileen intimitate eta norberaren irudirako eskubidea zaindu beharrez, hilerriko sail eta instalazioetan ez da argazkirik ateratzen ahalko ezta marrazkirik edo filmerik egiten ahalko ere. Hilerriko ikuspegi orokor edo partzialak ateratzeko Udalaren baimen berezia beharko da.
5. Debeku da hilerrian ibilgailuak sartzeari, berariaz baimendurik daudenak salbu, baita bizikletak eta motoak ere, eta orobat zakurrak eta bertzelako animaliak, itsu-zakurrak salbu.

6. Hilobietako obra eta idazkunek begirunea gorde beharko dute esparruaren eginkizunaren aldera, eta Uharteko Udalak onetsi eta homologatu beharko ditu betiere.

7. Debeku da, Udalak baimen berezia izan ezik, hezurtegi orokorrean sartzeari, baita baimena duten langileendako erreserbatuak dauden sail edo instalazio guztietara sartzeari ere.

8. Beranduenez, instalazioak ixteko tenorea baino ordu erdi lehenago egiten ahalko dira ehorzketak.

9. Obrak egiteko, Udalak finkatzen dituen orduetan baino ez da materialik sartuko. Partikularrek egiten dituzten obrak jendea sartzeko orduetan egin beharko dira eta dagozkien lizentzia edo baimenak beharko dituzte.

10. Debeku da hilerri barnean piezak edo marmolak zerratzea, baita desegite lanak egitea, hormigoia egitea edo gisakoak egitea. Arrazoi bereziak direla-eta egin behar badira, baimena eskatu behar zaio Udalari eta honek halako toki bat zehaztuko du lan horiek egiteko.

11. Gauaz espresuki debeku da hala ehorzketak egitea nola hilerriaren esparruan edozein lan mota egitea, non ez diren salbuespenekoak eta behar bezala arrazoituak eta baimenduak.

12. Kontzesiodunek beharko dituzte emandako ehorzketa unitateak zaindu eta mantendu.

13. Uharteko Udalak ez du inolako erantzukizunik bere gain hartuko hirugarrenek ehorzketa unitateetan paratzen diren eraikuntza elementu eta gauzak ebasten edo hausten badituzte, salbu eta indarra duen legeriak aurreikusitako kasuetan.

9. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

9.1.-Instalazioak ordenantza honetan ezartzen denaren arabera erabili beharko dituzte udal hilerriko erabiltzaile guztiak.

9.2.-Halako enpresa edo profesional batek eraikuntza jarduerarik edo bertzelakorik egiten badu hilerriko instalazioetan ehorzketa eskubideen titularrek eskaturik, bere jardueran aritzeko behar diren baimen administratibo guztiak beharko ditu, batetik, eta ehorzketa unitate guztietan egiten duen obra edo jarduketara bakoitzari dagokion obra edo jarduerari lizentzia, bertzetik.

10. artikulua. Erantzukizuna.

Halako enpresa edo profesional batek eraikuntza jarduerarik edo bertzelakorik egiten badu hilerrian ehorzketa eskubideen titularrek eskaturik, haren eta erabiltzaileen ardura izanen dira zerbitzuaren gainerako erabiltzaileei edo bertako ondasun eta instalazioei egiten zaizkien kalte guztiak.

### III. KAPITULUA

#### **EHORZKETA UNITATEAK**

## 1. ATALA

### *Ohar orokorrak*

11. artikulua. Gutieneko ezaugarri teknikoak.

11.1.-Hilobiak, horma-hilobiak eta panteoi barneko zuloak egiteko materialak iragazgaitzak izanen dira, baina ehorzketa unitate bakoitza eta, oro har, haren sistema, berriz, iragazkorak; gisa hartara segurtatuko da drainatze egokia eta gasak kalterik ez egiteko maneran hedatzea, eta orobat alderik garaienetik kanporatzea, nitxo eta panteoien kasuan. Sistema aurrefabrikatuak erabiltzen badira, luze-zabalak eta hobien edo horma-hilobien arteko tartea eraikuntza sistema zehatz bakoitzaren ezaugarri teknikoen arabekoak izanen dira; sistema hori homologatu beharko da aitzinetik.

11.2.-Hilobiek eta hobiak gutienez izanen dira: 2,30 metro luze, 0,80 metro zabal eta 2 metro sakon; hobien arte tartea 0,50 metro izanen da.

11.3.-Lauzen gehieneko pisua 100 kg izanen da.

11.4.-Horma-hilobiak gutienez izanen dira: 0,80 metro zabal, 0,65 metro garai eta 2,30 metro sakon; horma-hilobien arteko tartea 0,28 metro izanen da bertikalean eta 0,21 metro horizontalean. Zoladuratik 0,25 metro egiten duen zokaloaren gainean paratuko dira, eta gehieneko garaiera izanen da bortz ilarari dagokiena. Horma-hilobien zoruak %1eko malda izan beharko du gibelesko aldean kokaturiko hodi irazgaitz batera, eta hura legar eta kare biziko betegarria duen iragazteko putzu batera joanen da. Gainera, bermatuko da horma-hilobi bakoitzetik gasendako aterabide bat izanen da, sestra azpian kokaturiko ganbera komun batera joanen den hodi batean barna; horrek aire sarrera eta irteera izanen du, gutienez ere 0,15 m<sup>2</sup>-ko irekiera eta ikatz aktiboko betegarria dituena.

11.5.-Kolonbarioek ezaugarri hauek izanen dituzte: 0,40 metro zabal, 0,40 metro garai eta 0,60 metro sakon; itxitura betiberdina izanen dute guztiek. Gutieneko luze-zabal horiek ez dira beharrezkoak izanen errautsendako kolunbarioetarako, errausketetatik heldu diren errautsak gordetzeko baitira.

11.6.-Ehorzketarako bertze eraikuntza batzuk: mausoleoak eta panteoiak osatzen dituzten horma-hilobiek 11.4 puntuan ezarritako luze-zabalak izan beharko dituzte.

Ehorzketetaratako eraikuntzetan sistema aurrefabrikatuak erabiltzen badira, luze-zabalak eta arteko tartea eraikuntza sistema zehatz bakoitzaren ezaugarri teknikoen arabekoak izanen dira. Sistema horiek Osasun Departamentuaren homologazioa izan beharko dute aitzinetik.

## 2. ATALA

### *Ehorzketa unitate bakoitzeko zehaztapen teknikoak*

12. artikulua. Hilobiak.

Ehorzketarako lekua handitze aldera, ez da baimenik emanen hilobiak egiteko 2,20 metro luze bider 0,90 metro zabal baino gehiago badira, edo hilotzen gaineko egungo osasun araudia aldatuz gero, horrek zehazten duena baino gehiago badira.

13. artikulua. Panteoiak.

13.1.-Ezin izanen da panteoi berririk egin.

13.2.-Egungo panteoiak berritu, konpondu edo zaharberritzeko obretan ezin izanen da egungo eraikuntzaren funtsa aldatu.

13.3.-Dagokion ehorzketa eskubidea berritu gabe iraungitzen bada, posible izanen da kontzesio berri bat, indarra duen ordenantzari jarraikiz.

### III. TITULUA

#### ***HILOTZAK ETA GORPUZKIAK EHORTZI, HOBITIK ATERA ETA LEKUALDATZEA***

### I. KAPITULUA

#### ***XEDAPEN OROKORRAK***

14. artikulua. Hilotzak eta gorpuzkiak ehortzi, hobitik atera, berrehortzi, lekualdatu eta errausteko, hilotzen gaineko osasunaren arloan indarrean dauden xedapenei eta titulu honetan ezarritakoari jarraikiko zaie, ordenantza fiskalean ezarritako tasak sorrarazita.

15. artikulua. Ez da aintzat hartuko ehortzi, hobitik atera edo errausteko inolako eskaerarik, hildakoaren hurbileko senideek horren aurka daudela berriaz adierazten badute, agintari judizial eskudunak baimendu ezean.

16. artikulua. Hilotzak ezin izanen dira ehortzi edo erraustu, heriotzatik hogeita lau ordu iragan arte. Hala ere, hurrengo salbuespenak egonen dira:

a) Haren heriotza egiaztatu eta gero, organo eta ehunen emailea bada.

b) Osasunaren aldetik, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak espedienteari erantsitako dokumentuan xedatzen dituen goiti-beheitiak badira.

17. artikulua. Erregelamenduzko tramiteak bete gabe ehortzi edo errausteko ekartzen diren hilotzak hilerriko gorputegian egonen dira, tramiteak bete edo epai edo osasun aldetik zerbitzua egitea erabaki arte. Era berean, gorputegian egonen dira ehorzteko eta errausteko ordutegitik kanpo hilerrira etortzen diren hilotzak, eta bertan egonen dira zerbitzua egiten berriz hasi arte.

18. artikulua. Abortu, ebakuntza kirurgiko eta ebaketetatik heldu diren gorpuzkiak horretarako finkatzen den lurrean ehortziko dira.

## II. KAPITULUA

### **EHORZKETAK**

19. artikulua. 1. Ehorzketa egiteko, Udaleko bulegoetan honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Ehorzteko eskaera, inprimakiko datuak behar bezala beterik ondoren Erregistroan idazteko. Panteoi batean ehorztea nahi bada, eskubidearen titularrak edo hori erabiltzen ahal duenak aurkeztu beharko du eskaera, eta titularra zendua bera bada, haren senideek edo hurbilekoek. Bertze mota bateko hilobiak izanda, kontzesioa bere izenean emateko eskatzen duenak ehorzteko eskatuko du aldi berean.

b) Lurperatzeko lizentzia, errautsen ehorzketa izan ezean.

2. Aurreko idatz-zatiaren a) letran aipatutako pertsona ez denak panteoi batean ehorzteko eskatzen duenean, bakarrik gauzatuko da eskatzaileak egiaztatzen badu eskubidearen eskualdaketa bere alde dagoela, ordenantza honen III. tituluaren II. kapituluan xedatuari jarraikiz, eta horretarako bere gain hartuko ditu bai inguruabar hori frogatzeko obligazioa, titulartasuna aldatzeko prozeduran, bai haren jarduketagatik sortzen ahal diren erantzukizunak.

20. artikulua. Hilerriaren zerbitzuari atxikitako udal langileei egokituko zaie hilotzak hileta autoetatik ateratzea, hilobietara edo gorputegira eramateko.

21. artikulua. Inolaz ere ez dira onartuko hilotzen bilgarriak, gorpuen berezko deskonposizioa galarazten edo berandutzen badute.

22. artikulua. Ehorzketa guztietan hilobiko zuloak hermetikoki itxiko dira, jarioak eta isuri likidoak eragozteko.

Horma-hilobi eta kolunbarioetan ehorzteko, ehorzketa eskubidearen titularrek idazkuna duen behin betiko hilarria paratu beharko dute bi hileko epean.

23. artikulua. Ehorzketak Udalak baimendu edo alta emandako lurreko hilobietan, panteoietan, horma-hilobietan edo kolunbarioetan eginen dira.

Barnealdearen tamaina txikia edo behar ez bezalako artapena izateagatik zerraldoak behar bezala sartu eta paratzeko aukerarik ematen ez duten panteoietan, ezin izanen da ehorzketarik egin.

Kontzesio pribatuko panteoiak kontzesio hartzailearen bizkar ireki, holtzez zatitu eta itxiko dira; udal enpleguaren lana bere lekuan sartzeari izanen da.

24. artikulua. Gorpuzkiak dituzten horma-hilobietan ehorzteko, aldeztu aurretik horiek bildu beharko dira. Hori egiteko, bertan egon beharko da hilerriaren arduradun bat, eta eskubidearen titularrak eta horrek eskuordetutako pertsona ere horretara bertaratu ahal da, horretarako abisua jaso ondoren.

Horma-hilobietan gorpuzkinak berrehorritzen ahal dira hilotza sartzeko unean, baina ezin izanen da horma-hilobi bat ireki gorpuzkinak uzteko bakarrik.

25. artikulua. Panteoi, horma-hilobi edo kolunbario bakoitzaren ondoz ondoko ehorzketen kopurua edukierak baino ez du mugatuko, ehorzketa eskubidearen titularrak ehortzi beharreko hilotzen kopurua edo zerrenda aldaezina nahita eta berariaz mugatu ezean. Horretarako, hori adierazi beharko da erregistroko hilobien atalean.

### III. KAPITULUA

#### **HOBITIK ATERATZEA, BERREHORZTEA ETA LEKUALDATZEA**

26. artikulua. Epaileak agindu ezean, ezin izanen da hilotzik hobetik atera, heriotzatik lau urte iragan arte, ehorzketa zerraldo arruntean edo lekualdaketarako zerraldoan egin den kontuan hartu gabe.

Lurreko hilobietan egindako ehorzketei dagokienez edo heriotza Hilotzen gaineko Osasunari buruzko maiatzaren 9ko 123/1986 Foru Dekretuaren 2. artikuluaen 1. taldean adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, bortz urteko epea iragan beharko da hilobia irekitzeko edo, osasun teknikarien iritziz, hilotzaren gai organikoa erabat deskonposatzeko behar den epe luzeagoa.

Ez da inolako eperik zehaztuko, baltsamatutako hilotzak hobitik ateratzeko.

27. artikulua. Hilotzak hobitik ateratzean hilerri berean berrehorzteko, bertze hilerri batera lekualdatzeko edo errausteko, hilobiaren gaineko ehorzketa eskubidearen titularrak eskabidea aurkeztu beharko du, ordenantzaren 30.2 artikuluan ezarritako kasuan izan ezik, eta osasun teknikari eskudun baten aitzinean egin beharko da. Gorpuzkiak atera eta lekualdatzeko ez da aitzinean egon beharko.

28. artikulua. Hilotza edo gorpuzkiak hobitik ateratzen badira hilerriaren barreneko bertze hilobi batera eramateko, berrehorzketa egin nahi den hilobiaren gaineko eskubidea duen titularraren baimena beharko da.

29. artikulua. Osasun baimena beharrezkoa izanen da hilotzak edo gorpuzkiak bertze hilerri batera eraman nahi direnean, arauetan ezarritako kasuetan.

30. artikulua. Hilobi bateko hilotza edo gorpuzkiak hobitik atera edo lekualdatu nahi direnean hilobiaren ehorzketa eskubidea zenduaren izenean dagoela, titulartasun aldaketa eskatu eta erabaki beharko da aitzinetik, ordenantzaren 55 a) artikuluan ezarritako kasuan izan ezik.

31. artikulua. 1. Panteoiak konpontzeko obra partikularrak egiteko hilotzak edo gorpuzkiak lekualdatzea baimentzen denean eta hobitik ateratzen ahal diren guztietan, aldi baterako horma-hilobietan gordeko dira, ordenantza fiskalean ezarritako tasak ordaindu eta gero. Obrak amaitzen direnean, jatorrizko hilobietara lekualdatuko dira.

2. Udalak egin beharreko obra orokorrak egitearen ondorioz lekualdatu behar direnean, eskubidearen titularrari aldeztu aurretik abisua emanda, berrehorzketa aldi baterako horma-hilobietan eginen da behin-behinean edo antzeko kategoria eta baldintzak dituzten hilobietan behin betiko. Halakorik bada, ehorzketa eskubidea hilobi berriari esleituko zaio.

3. Aitzineko jarduerak ez dute aldatuko kontzesioaren hasierako epea.

32. artikulua. Hobitik ateratzeak hilerriaren administraritzak adierazten duen ordutegian eginen dira eta esparruan ahalik eta pertsonarik gutxien daudenean egin daitezela saiaturiko da.

Ekainetik irailera bitarte, biak barne, ez da hilotzik aterako hobitik, epaileak agindu ezean.

33. artikulua. Hezkuntza helburuak izanda, ikastetxeek gorpuzkiak hobitik ateratzean lortutako hezurak eskatzen ahaliko dituzte. Dena den, helburua bete ondotik hilerriari itzuli beharko dizkiete.

34. artikulua. Hobitik ateratzean zerraldoetan agertzen diren gai baliotsuak, protesiak izan ezik, zenduaren oinordekoek eska ditzakete, betiere eskabidea egiten badute hobitik atera baino lehen, beraien nortasuna eta oinordetza frogatu ondoren.

## **IV. TITULUA**

### ***EHORZKETA ESKUBIDEA***

## **I. KAPITULUA**

### ***HILABIEN KONTZESIOA***

35. artikulua. Horma-hilobien, kolunbarioen, lurreko hilobien eta panteoien erabileraren gaineko ehorzketa eskubidea kontzesio egintzaren bidez sortuko da. Horretarako, testu honen I. eranskinean ezarritako tasa edo, enkante prozesua erabiltzen denean, esleipena hartzen duen proposamenaren balio ekonomikoak zehaztutakoa ordaindu beharko da.

36. artikulua. 1. Panteoiak eta panteoiak eraikitzeke lurzatiak erabiltzeko kontzesioek berrogeita hamar urteko iraupena izanen dute, eta bi aldiz luzatzen ahaliko dira: hasieran hogeita bost urteko aldirako eta gero hogeita lau urteko aldirako.

2. Gorpuzkietarako kolunbarioak erabiltzeko kontzesioek berrogeita hamar urteko iraupena izanen dute, eta bi aldiz luzatzen ahaliko dira: hasieran hogeita bost urteko aldirako eta gero hogeita lau urteko aldirako.

Errautsetarako horma-hilobiak eta kolunbarioak erabiltzeko kontzesioek hamabost urteko iraupena izanen dute, eta behin luzatzen ahaliko dira, hamar urterako.

Lurrean ehorzteko erabiltzeko kontzesioek hamabost urteko iraupena izanen dute, eta behin luzatzen ahaliko dira, hamar urterako, kasu honetan horma-hilobi edo kolunbarioan.

37. artikulua. Aipaturiko luzapenak ematen direnean indarra duten tarifei lotuko zaizkie, eta horretan ez da salbuespenik onartuko. Kontzesioa zer egunetan bukatzen den, luzapena 2 hilabete aitzin eskatu behar da gehienez ere, eta gutxienez ere 15 egun lehenago.

38. artikulua. 1. Horma-hilobiak, kolunbarioak eta lurreko hilobiak erabiltzeko kontzesioa ehorzketaren unean ematen dela ulertzen da, onespena horren ondotik ematen bada ere. Bertzelakorik adierazi ezean, titularra izanen da zuzenean edo hileta zerbitzuen enpresa baten bidez bere izenean emateko eskatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa.

Kontzesioak ehorzleku mota bakoitzaren zenbaki korrelatiboaren ordenari jarraikiz edo, ordena korrelatiboan, dauden leku hutsak osatuz emanen dira.

2. Hilobian bertze hondar batzuk egonda, hilotzak horma-hilobietan edo gorpuzkiak kolunbarioetan ehorzteak hori erabiltzeko kontzesio berria ematea dakar hamar urteko aldirako, ehorzten den egunetik hasita.

39. artikulua. 1. Panteoiak eta panteoiak eraikitzeke lurzatiak erabiltzeko kontzesioa tramitatutako prozeduran behin betiko esleituz emanen da, eta publizitate eta lehia printzipioei jarraituko die.

Panteoiak eta panteoiak eraikitzeke lurzatiak enkantean jartzeari buruzko iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Herriko Etxeko eta hilerriko ediktu oholetan eta tokiko bi egunkaritan argitaratuko da gutxienez. Udalak esleipena arautuko duen baldintza agiria jarriko du partikularren eskura.

2. Justifikatutako kasuetan, alboko lurzatiari kontzesioa luzatzea baimentzen ahalko da, panteoi bat osatzeko moduan. Kasu horretan okupazio handiagoak eragindako tasak ordaindu beharko dira, lurzatiak enkantean emateko azken esleipenaren banaz-bertzeko prezioaren arabera. Luzapen horrek ez du aldatuko kontzesioaren hasierako epea.

40. artikulua. Panteoietan egin daitezkeen ondoz ondoko ehorzketek eta hilobien erabileraren gaineko hileta eskubideen eskualdaketek ez dute aldatuko kontzesio epearen iraupena.

Hala ere, salbuespen bat egonen da: kontzesioa edo, bertzenaz, luzapena bukatzeko falta den epea hilotzak hobitik ateratzeko ezarritako denbora baino txikiagoa izan daiteke; beraz, hilotz bat orduan panteoian lurperatzen bada, epe hori automatikoki luzatuko da hilotzak hobitik ateratzeko behar den denborarako; bien bitartean, ezin izanen da inor ehortzi.

41. artikulua. Aurreko artikuluek aitortu bezala, ehorzketa eskubidea barnean hilotzak eta gorpuzkiak ehorzteko eta gordetzeko udal jabetzako hilobien erabilerara mugatuko da; hau da, ez dago lotuta lurrari eta ezin da eraiki bertze deus. Horretaz baliatzeko, ordenantza honen xedapenei lotu beharko zaie.

42. artikulua. Hilobi mota guztien gaineko ehorzketa eskubidea bermaturik geldituko da hilerriko erregistroan inskripzioa eginda, eta haren inguruabarrak dagokion inskripzioak adierazten dituenak izanen dira.

43. artikulua. Hilobiak erregistroko hilobien atalean inskribatuko dira, eta inskripzio bakoitzean hurrengo datuak aipatuko dira:

a) Hilobiaren identifikazioa.

b) Kontzesioaren eguna.

- c) Ordaindutako tasak.
- d) Eskubidearen titularraren izen-abizenak eta helbidea.
- e) Eskubidea gauzatzeko titularrak oro har hautatzen ahal duen ordezkariaren izen-abizenak eta helbidea.
- f) Hala denean, titularrak hautatutako onuradunaren izen-abizenak eta helbidea.
- g) "Inter vivos" egintzen bidezko edo "mortis causa" eskualdaketak, ondoz ondoko titularren eta, hala denean, gozamedun ezkontidearen izen-abizenak eta helbidea adierazita.
- h) Ehorzketak, hobitik ateratzeak eta lekualdaketak, honako hauek adierazita: zein hilotz edo gorpuzki den, pertsona horren izen-abizenak, eta jarduketa noiz izan den.
- i) Mugak, debekuak eta itxiera, bidezkoa bada.
- j) Hilobia edo haren ingurua ukitzen duen edozein gertakizun.

44. artikulua. Kontzesioa administrazio agirian gauzatu da. Hartan honako hauek adieraziko dira: kontzesioaren hilobia, esleipen eguna eta iraupena. Ehorzketa eskubideen titularrek edo gozamedunek hilobiari buruzko erregistroko datuen informazioa eskatzeko eta eskuratzeko eskubidea izanen dute.

45. artikulua. Ehorzketa eskubidea une bakoitzean titularra denaren izenean agertuko da erregistroan, hurrengo zehaztasunekin:

- a) Oinordetza edo bertze titulu baten bidezko hurrenez hurreneko eskualdaketek titularkidetasuna dakartenean, partaideek erregistroan titular gisa agertuko den pertsona hautatu beharko dute, guztiak ados egonda. Udalak ez du baimenduko titulartasuna aldatzea, adostasun hori egiaztatzen ez bada, nahiz eta edozein partaidek ehorzketa eskubidea gauzatzea baimenduko duen, bertzeak horren kontra ez badaude.
- b) Lurzati edo panteoi baten lehenengo esleipenean bi ezkontideak titularrak izanen dira, hori eskatzen badute.
- c) Titularra pertsona juridikoa bada, estatutuen arabera eskumen horri dagokion kargua duen pertsona fisikoak gauzatu du ehorzketa eskubidea edo, bertzenaz, lehendakariak edo maila handieneko zuzendari edo instituzio kargudunak.

46. artikulua. Hileta zerbitzuen enpresak, aseguru konpainiak, aurreikuspeneko mutualitateak edo, haien jarduera gauzatzean, pertsona bat hiltzen denean lurperatzeko eskubidea ematen duten bertzelako entitate juridikoak ezin izanen dira ehorzketa eskubidearen titularrak izan.

## II. KAPITULUA

### ***EHORZKETA ESKUBIDEAREN ALDAKETA***

## 1. ATALA

### *"Mortis causa" eskualdaketak*

47. artikulua. Ehorzketa eskubidearen titularrak, noiznahi, kontzesioaren onuraduna izendatzen ahalko du eskritura publikoan, bera hil ondorako, hilobiaren datuak eta onuradunaren izen-abizenak eta helbidea adierazita. Era berean, ordezeko onuraduna hautatzen ahalko du, nagusia lehenago hiltzen ote den.

Ehorzketa eskubidearen eskualdaketek sortutako titular berriek ere onuraduna hautatzen ahalko dute.

48. artikulua. Hautaketa ondoriorik gabe geldituko da, onuraduna eskubidearen titularra baino lehenago hiltzen denean eta onuradunaren ordezekoa hautatu ez denean. Halakoetan, eskubidea "mortis causa" oinordetzari jarraikiz eskualdatuko da, hurrengo artikuluetan ezarri bezala.

49. artikulua. Onuradunik egon gabe titularrak modu baliozkoan xedatu badu ondorengotza, eskubidean hurrengo den eta oinordetzari uko egin ez dionaren aldeko eskualdaketa eginen da.

Titularrak ondorengotzarik xedatu ezean, ehorzketa eskubidea senideei eskualdatuko zaie, lege zibilak ezarritako ordenari jarraikiz.

50. artikulua. Kontzesioa alarguntasunaren gozamenaren xede baldin bada, hilobiaren erregistroko inskripzioan gozamedunaren izena adieraziko da. Pertsona horrek eskubidearen titularrari dagozkion eskumen eta betebeharrak guztiak izanen ditu, onuraduna hautatzea izan ezik.

## 2. ATALA

### *"Inter vivos" eskualdaketa*

51. artikulua. Ehorzketa eskubidearen titularrak eskubide hori doan lagatzen ahalko die honako hauei, inter vivos egintzaren bidez: titularraren odolkidetasuneko laugarren mailara arteko eta ezkontidearen ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko aurreko eta ondorengo ahaideei eta zehar-ahaideei, eskualdatu baino lehen titularrarekin afektibitate harremana eta bortz urteko gutxieneko bizikidetzatza izan dituztela egiaztatzen badute, edo irabazi asmorik ez duten eta ongintza edo laguntzea xede duten pertsona juridikoei.

Aurreko paragrafoan aipatu diren ahaideen artean egiten ez diren eskualdaketatik, eskuratzailerak Udalari ordaindu beharko dio kontzesioa ematean lurreratik ordaindu zuen zenbatekoaren eta tarifaren arabera subrogazio egunean bidezkoa denaren artean egon daitekeen prezio aldea. Dena den, eskualdatzaileak ezin izanen du jaso kontzesioa ematean Udalari ordaindu zion zenbatekoa baino gehiagorik.

52. artikulua. Titulartasun aldaketa doan eta "inter vivos" lagapenaren bidez baimentzen ahalko da bertze pertsona batzuekiko, Udalak uste badu arrazoiren bat badela eskualdaketa funtsatzeko, betiere hilobian inor ehortzi ez bada eta kontzesioa eman zenetik hamar urte iragan badira, gutienez.

## 3. ATALA

### *Behin-behineko titulartasuna*

53. artikulua. Eskubidea nori eskualdatzen zaion modu fede-emailean zehaztea ezinezkoa bada titularra hil dela justifikatu ezin izateagatik, aurkeztutako dokumentazioa behar bezalakoa ez izateagatik edo bertze arrazoi batzuegatik, titulartasuna behin-behinean onartzen ahalko zaio aldaketa eskatu eta, kapitulu honen 1. atalean xedatutakoaren arabera, horretarako eskubidea izan dezakeenari.

54. artikulua. Behin-behineko titulartasuna eskubide handiagoa duten hirugarrenei kalterik egin gabe onartuko da, eta debeku izanen da aurreko titularraren ezkontidearen, odolkidetasuneko laugarren mailara arteko eta ezkontidearen ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko aurreko eta ondorengo ahaideen eta zehar-ahaideen hilotzak edo gorpuzkiak hobitik atera ondoan, epaile batek agindu ezean.

55. artikulua. Behin-behineko titulartasuna ondorioz gabe geratuko da, hura onartu denetik hamar urteko epean eskubidearen eskualdaketa justifikatuta titulartasuna aldatzea erabakitzen ez bada.

## 4. ATALA

### *Prozedura*

56. artikulua. Ehorzketa eskubidearen titularra hildakoan, eskubidearen eskualdaketa jasotzen duen pertsonak titulartasuna bere izenean jartzeko eskatu beharko du eta, horretarako, eskualdaketa frogagiriak aurkeztuko ditu Udalean.

57. artikulua. 1. Hala denean, ehorzketa eskubidearen titulartasuna aldatzea erabakiko da, administrazio espedientearen tramitatutako eskabidea aurkeztu eta gero. Tramite horretan entzunaldia emanen zaie gainerako interesdunei eta eskualdaketa frogagiriak aurkeztuz frogatuko du bere eskubidea.

2. Prozedurako interesdunak ezezagunak direnean, prozedurako derrigorrezko izapidea izanen da iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko eta hilerriko ediktu oholetan argitaratzea, prozeduran bertaratu eta adierazitako epearen barnean alegazioak aurkez ditzaten.

58. artikulua. Eskualdaketa onarpenak administrazio ondorioak baino ez ditu sorraraziko, arlo zibileko inolako aferarik aitzinetik juzgatu gabe.

59. artikulua. 1. Hilobi baten erabileraren klausula mugatzaileak, haien aldaketa edo deuseztapena titularrak eskatuta erabakiko dira eta behar bezala erregistratuko dira, heriotzaren ondoan irmoak eta behin betikoak izanen direla.

2. Erregistroko hilobien atalaren inskripzioen bertze datu batzuk zuzendu eta deuseztatze, interesdunak eskatu beharko du, bidezko justifikazioaren edo egiaztapenaren ondotik.

## **EHORZKETA ESKUBIDEAREN IRAUNGIPENA**

60. artikulua. 1. Ehorzketa eskubidea kasu hauetan iraungiko da:

- a) Eraikuntzaren hondamen egoeratik. Iraungipena erabakiko da aldez aurreko txosten teknikoan egoera hori adierazi eta eskubidearen titularrak beharrezko obrak egiteko egindako errekerimenduari ez aditu egin ondoan.
- b) Hilobia abandonatzeagatik. Horrelakotzat joko da eskubidearen titularrak egin beharreko garbiketetan eta mantentze-lanetan modu agerian arreta ez jartzea, horretarako aitzinetik egindako errekerimenduari ez aditu eginik.
- c) Eskubidearen kontzesio epea iragateagatik luzapena eskatu gabe, edo luzapenaren epea iragateagatik bertze bat eskatu gabe.
- d) Kontzesioa amaitu baino lehen, hobitik ateratzeagatik edo horma-hilobiak, kolunbarioak edo lurreko hilobiak nahita husteagatik.
- e) Titularrak berariaz uko egiteagatik.
- f) Ordenantza honetan xedatuari kontra egiten dion lagapenagatik.
- g) Ordenantza fiskalean ezarritako tasak ez ordaintzeagatik.
- h) Ordenantzaren 85. artikulua panteoiak eraikitzeke lurzatiaren kontzesio hartzaileei ezarritako betebeharrak ez betetzea.
- i) Hilerria ixtea.

2. Panteoiak eta panteoiak eraikitzeke lurzatiak erabiltzeko kontzesioak ezin izanen dira luzatu, hura amaitu aurreko hogeita hamar urtean horietan hilotzak edo gorpuzkiak ehortzi, hobitik atera edo lekualdatzen ez badira edo, titularra hilda edo haren nortasun juridikoa iraungita, titulartasun aldaketa baimentzen ez bada bertze pertsona baten alde.

61. artikulua. Kontzesio epea iragatea ez den bertze arrazoiren batek eragindako iraungipena espediente bururatu duen berariazko ebazpenean adieraziko da, eta, nolana ere, eskubideen titularrei jakinaraziko zaie.

62. artikulua. Iraungipena hondamenak edo abandonatzeak ekartzen duenean, eskubidearen titularraren heriotza jasota badago, interesdunei hitzordua emanen zaie titulartasun aldaketarako duten eskubidea alega dezaten. Interesdunak ezezagunak baldin badira, zitazioa egingen da honako hauetan iragarkia argitaraturik: Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Udaleko eta hilerriko iragarki oholetan eta, gutienez ere, hemengo bi egunkaritan.

Oinordekoak edo edozein titularen bidez subrogatutako pertsonak bertaratzen badira eskualdaketa justifikatuta, titulartasuna beren alde aldatzea lortzen ahalko dute, baldin eta ondorio horretarako ezartzen den epean hilobia konpontzeko edo egokitzeko obrak gauzatzen badituzte.

63. artikulua. Iraungipena dela-eta kontzesioa galduz gero, hilobia Udalaren esku geldituko da, eta eskubidearen iraungipenetik ez da inolako ordainketarik edo kalte-ordainik sortuko titularraren alde. Aitzinetik gaztigu eginda, dauden gorpuzkiak hezurtegi orokorrera eramanez dira edo, bertzenaz erraustuko dira, zenduaren ahaideek edo haien baimena duten bertze pertsona batzuek bertze hilobi batera eramateko eskatu ezik edo, pertsona ospetsuen gorpuzkiak izanda, Udalak hilobian uztea erabakitzen badu.

64. artikulua. Hobi komuneko hilobietan hildakoaren izena, heriotzaren eguna eta hilotza identifikatzeko beharrezko gainerako datuak biltzen dituen gurutzeta edo hileta ikurra jartzea onartuko da, ezer ordaindu behar izan gabe.

65. artikulua. Aldi baterako kontzesio epea amaitu eta gero, gorpuzkiak hobitik atera, eta hezurtegi orokorrera eramanez dira, lekualdaketa eta ezkontidearen edo odolkidetasuneko bigarren mailara arteko ahaideen hilotzaren ehorzketa aldi berean gertatzen direnean senideek hilobira, gorpuzkietarako kolunbariora edo horma-hilobira eramatea erabaki ezean.

Hildakoaren senideek aldi baterako kontzesioaren lurraren gainean jarritako objektuak biltzen ahalko dituzte.

66. artikulua. Betiko kontzesioa duten aspaldiko horma-hilobiek beren izaerari eutsiko diote. Dena den, kontzesioa iraungitzat jotzen ahalko da, apaintzeko edo aurri egoera konpontzeko obrak egin behar badira.

Apaintzeko edo hondamen egoera konpontzeko asmoz Udalak iraungipena adieraziko du, horma-hilobiaren eskatzaile gisa agertzen denak edo interesa duten ahaideek agindutako epean beharrezko obrak egiten ez badituzte. Halaber, iraungipena adieraziko du, pertsona horiek ezezagunak izanda edo leku ezezagunean egonda, ediktu bidez Nafarroako Aldizkari Ofizialean, probintziako egunkarietan eta Herriko Etxeko eta hilerriko iragarki oholetan bi alditan, 15 eguneko tartea utzita bien artean, egindako deia argitaratzen denetik hamabortz egun balioduneko epean agertzen ez badira.

Betiko kontzesioa iraungita duten horma-hilobietako gorpuzkiak hezurtegi orokorrera eramanez dira.

## **V. TITULUA**

### ***HILOBIAK ERAIKITZEA, MANTENTZEA ETA ZAINTZEA***

## **I. KAPITULUA**

### ***XEDAPEN OROKORRAK***

67. artikulua. Hilerriaren esparruaren barnean edozein obra egiteko, horiek egiteko kontratatzen diren enpresek honako arau hauek bete beharko dituzte:

a) Harria, marmola, metalak edo bertzelakoak prestatzeko lanak ezin izanen dira esparruaren barnean egin.

b) Eraikuntzako materialen prestalana hautatzen diren tokietan egin beharko da, kasu bakoitzean beharrezkoa den babesarekin.

c) Materialak, tresnak, lurra edo ura igarobidea eragozten ez duten lekuetan utziko dira.

d) Ondoko hilobi edo landareei kalterik ez egiteko maneran paratuko dira Aldamioak, hesiak edo eraikuntzarako behar den bertze edozein tresna lagungarri. Pertsonak eta ondasunak babesteko beharrezko neurriak beteko dira, eta obrak eskatu eta egiten dituztenek obrak egitearen ondorioz sor daitezkeen kalteak beren gain hartuko dituztela ulertuko da.

e) Hilerriaren esparruan ibilgailuak erabiltzeari buruz dauden arauak errespetatuko dira eta ezin izanen da hilerriaren ibilgailurik edo tresnarik erabili, berariazko baimenik gabe.

f) Obra bukatutakoan, tokia garbitu egin beharko dute eta handik eraman obra-hondakinak, puskak edo materialen hondarrak; baldintza hori bete ezean, ez zaio alta emanen hilobiari.

g) Zerbitzua hobeto ibiltzeko hilerriaren administratzaileak xedatzen dituenak.

68. artikulua. Norberak eraikitako hilobiak konpontzeko eta zaintzeko obrak eta Udalak eraikitako hilobietan hilarriak eta osagarriak edo apaingarriak jartzea eskubideen titularren kontura eginen dira.

69. artikulua. Hilerriko zerbitzuko langileen eta baliabideen bidez hilobiak irekitzeko eta ixteko lanak egin ezin direnean, enpresaburu partikularren laguntzaz eginen da, eta sortutako gastu gehigarriak hilobiaren gaineko ehorzketa eskubidearen titularraren konturakoak izanen dira.

Nahi izanez gero, eskubideen titularrek beren gain hartzen ahalko dute horma-hilobietatik hilarriak kentzea, hilotzak eta gorpuzkiak ehorzteko edo hobitik ateratzeko. Hilarria gordetzeko interesik nahi ez badute, hilerriko zerbitzuari eskatzen ahalko diote, horma-hilobia irekitzean, hilarria kentzeko; hala ere, ez dute eskubiderik izanen sortzen ahal diren kalteengatik kalte-ordaina jasotzeko.

70. artikulua. Hilarrietako hilarritzak, oroigarriak, ezaugarriak eta ikurrak edozein hizkuntzatan jar daitezke, eta behar bezalako begirunea agertu beharko dute. Hirugarrenen eskubideen aurka jo dezaketen idazkunen erantzukizuna titularrarena izanen da.

71. artikulua. Hilerrian ez zaio inori utziko landaketa partikularrik egiten, arbolen, zuhaixken eta belarraren landaketa udal langileek eginen baitute. Lurreko hilobietan ere inori ez zaio utziko bertze deusik uzten, non ez den hilarriarendako hormigoizko oinarria.

72. artikulua. Eskubideen titularrek edo haien baimena duten bertze pertsona batzuek zaindu eta garbituko dituzte hilobiak.

Hilobia garbitu ondoren, lore arrastoak eta bertzelako objektu erabiltezinak ondorio horretarako hautatutako lekuetan utzi beharko dira.

73. artikulua. 1. Ezin izanen da hilerrira sartu edo handik atera hilobien zerbitzurako gairik, hilerriaren administraritzaren baimenik gabe.

2. Hilobietan instalatzen diren hilarriak eta obra artistikoak ehorzketa eskubidearen titularrak kentzen ahalko ditu kontzesioa amaitutakoan, objektu nagusiari kalterik egin gabe bereizten ahal badira.

## II. KAPITULUA

### **EHORZKETA ESKUBIDEEN TITULARREN KONTURAKO OBRAK**

#### 1. ATALA

##### *Hilobiak eraikitzeke obrak*

74. artikulua. Emandako lurzatiaren gainean panteoiak eraikitzeke obrak baimentzeke eta gauzatzeko, hurrengo artikuluetan adierazten diren arauak eta eraikinak hilerriaren hirigintza eta funtzio beharrezanetara egokitzeko ezartzen ahal diren baldintza bereziei helduko zaie.

75. artikulua. 1. Lurzati baten kontzesio hartzaileak honako hauek egin beharko ditu:

a) Eraikuntza proiektu osoa aurkeztu hiru hilabeteko epean, kontzesioari buruzko jakinarazpena jasotzen denetik aurrera zenbatuta, eta obra lizentzia eskatu.

b) Udal teknikariek adierazten dituzten proiektuaren hutsuneak zuzendu, hori egiteke eskatzen zaienetik hilabeteko epean.

c) Udal lizentziak ezarritako epean eraikuntza obrak abiarazi, eta horiek amaitu urtebeteko epean, lizentzia ematen denetik aurrera zenbatuta.

2. Salbuespen gisa epe horiek luzatzen ahalko dira nahitaezko denborarako, obren motak, garrantziak edo kalitateak justifikatzen badu, udal teknikariak egindako txostena ikusita.

3. Aitzineke ataletan kontzesio hartzaileari ezarritako betebeharretatik edozein betetzen ez bada hori justifikatzen duen arrazoirik gabe, kontzesioa eskubide osoz suntsituko da. Hala denean, egindako lana galdu eta utzitako bermea konfiskatuko da, esleitutako lurzatiak jaberik gabe geldituko dela. Gainera, elementu erabiltezinak kontzesioaren kontura eraitsiko dira. Gainera, elementu erabiltezinak kontzesio hartzailearen kontura eraitsiko dira.

76. artikulua. Ezin izanen da hilobi partikularrik eraikitzen hasi, lurzatiak zuinkatu eta mugatu baino lehen eta lizentzia eman eta hori emateak eragindako tasak ordaindu direla justifikatu arte.

Lurzatiak finkatzeko eta, hala denean, inautseke gastuak kontzesio hartzailearen konturakoak izanen dira.

77. artikulua. Eraikin partikularrek ez dute izanen esleitutako lurzatiaren muga gainditzen duen teilatu-hegalik, ezta erlaitzik ere.

Eraikuntza horiek sestra azpiko hiru solairu eta sestra gaineko solairu bat izanen dituzte lurperatzeko, gehienez. Hilerriko paretetako baten bati atxikitako eraikinei dagokienez, kasuan kasuko paretaren garaiera gainditzen ez duena baimentzen ahalko da eraikinerako.

78. artikulua. Eraikuntza partikularreko hilobien kanpoko paramentuak eta haien apaingarriak material noblekoak izan beharko dira. Behar bezala kontserbatzeko bermerik eskaintzen ez duten guztiak debekatuko dira.

79. artikulua. Hilobi partikularra eraikitzeke eskabidearekin batera, teknikari eskudunak sinatzen duen eta oniritzia duen proiektua aurkeztuko da. Proiektu horretan eraikina osatzen duten solairuak, fatxada eta hori ulertzeko behar diren atalak adieraziko dira.

80. artikulua. Kontzesio hartzaileak aditzera eman beharko du obrak bururatu direla, eta aldaketaren bat izan bada haren berri eman. Nahitaezko txosten teknikoa ikusita, interesdunari eskatzen ahalko zaio hori zuzentzeko, planoen arabera, edo obra legeztatzeke, hari dagozkion tasak ordainduz. Baimenduarekin bat heldu den eraikuntza partikularreko obra bururaitu edo legeztatu ondoan, ehorzketak egiteko alta emanen zaio panteoiari.

81. artikulua. Gauzatzeko epea iragaten bada obrak bururatu gabe, egindako obrak azertu eta egiaztatuko dira ofizios eta, atzerapena justifikatuta ez badago, lizentzia iraungi dela erabakiko da.

82. artikulua. Debeku da hilobiak egitea.

## 2. ATALA

### *Konpontzeko, zaintzeko eta apaintzeko obrak*

83. artikulua. Hilobia berreraikitzeke, zaharberritzeke edo zaintzeko obrak egiten badira eskubideen titularren kontura, obra lizentzia beharko da, haren atalen egitura ukitzen badute. Era berean, haien baimena, exekuzioa eta ikuskapena kapitulu honen 1. atalean ezarritakoari lotuko zaizkio, gauzatzeko epeari dagokiona izan ezik; izan ere, sei hilekoa izanen da eta, interesdunak eskatuz gero, bertze hiru hilez luzatzen ahalko da, udal teknikariak egindako txostenaren arabera obren garrantziak justifikatzen badu.

84. artikulua. Proiektuko obrek hilobiaren mugak handitzea dakartenean, ez da lizentzia eskaerarik tramitatuko, hilerriaren administratzailearen alde aurreko txostena ikusita kontzesioa aldatzea erabaki ez bada aurretik. Txosten horretan aldaketak ehorzketa eskubideen bertze titular batzuei eta hilobia duen hilerriaren zatiaren estetikari eta funtzionaltasunari ekar diezazkiekeen kalteak baloratuko dira. Aldaketak ez du kanbiatuko kontzesioaren hasierako epea.

Kontzesioaren aldaketa onesten duen udal erabakiaz gain, beharrezkoa izanen da okupazio handiagoak eragindako tasak ordaintzea obra lizentzia tramitatzeke. Tasa horiek kalkulatzeko, lurzatiak enkantean emateko azken esleipenaren banaz-bertzeko prezioa hartuko da oinarri.

85. artikulua. Garrantzi txikikoak izateagatik teknikari eskudunak sinatutako proiekturik behar ez duten konpontzeko, zulatzeko edo hilobiak pilastrez, barrez eta harlauzez ixteke obrak eta hilarriak, estatuak, gurutzeak eta apaintzeko ohiko bertzelako ikurrak edo objektuak paratzeko obrak lizentzia laburtuaren bidez baimenduko dira, beharrezkoa bada.

86. artikulua. Baimendutako obrak ezin izanen dira abiarazi, hilerriko bulegoetan lizentzia bera eta lizentzia emateagatiko tasak udal gordailuzaintzan ordaindu direla egiaztatzen duen agiria aurkeztu arte.

### **III. KAPITULUA**

#### ***EHORZKETA UNITATEEN HONDAMEN DEKLARAZIOA***

87. artikulua. Erortzeko arriskuan dauden ehorzketa unitateak hondamen egoeran deklaratu dituzte Uharteko Udalak, alde biko espedientea erabiliz; hartan hogeita hamar eguneko epea emanen zaio ehorzketa eskubidearen titularrari, komenigarri iruditzen zaizkion alegazioak aurkezteko, salbu eta hura leku ezezagunean dagoenean, orduan 66. artikuluari jarraituko baitzaio.

Eraikuntzak hondamen egoeran daudela ukertuko da baliabide arruntak erabiliz konpontzen ahal ez direnean edo konponketaren kostua haien eraikuntzarako zenbatesten den kostuaren %50 baino handiagoa denean, egungo prezioetan kalkulaturik.

Hondamen egoeraren deklarazioa eginda, ehorzketa eskubidearen iraungipena ere deklaratu da eta aitzineko artikuluan ezarritako jarduketak antolatuko dira, eta behar den eraispenari lotuko.

### **VI. TITULUA**

#### ***ZEHAPENEN ARAUBIDEA***

### **I. KAPITULUA**

#### ***ARAU-HAUSTEAK***

88. artikulua. Honako hauek arau-hauste arinak izanen dira, non ez duten portaera larriaren edo oso larriaren kalifikazioa:

- a) Esparruaren lasaitasuna urratzea.
- b) Hilerriko gainerako erabiltzaileekin eta enplegatu publikoekin oker jokatzeko.
- c) Udal hilerriko instalazioak oker erabiltzea.
- d) Hilerriko erabiltzaileen edo Administrazioaren beraren ondasunak ardurarik gabe erabiltzea.
- e) Traba egitea espazio publikoak bertze pertsona batek edo batzuek erabiltzean; horren barnean dago esparruan sartzeko baimenik ez duten ibilgailuekin, bizikletekin edo motorrekin, baita zakurrekin edo bertzelako animaliekin ere, salbu eta itsuak direnean beren itsu-zakurrekin.

89. artikulua. Honako hauek arau-hauste larriak izanen dira:

- a) Erabiltzaileen lasaitasuna haustea eta haien eskubideak urratzea, esparruaren barnean argazkiak, marrazkiak, filmaketak edo gisakoak eginez.
- b) Hilerriko espazio publikoak edozein merkataritza jarduera eta edozein propaganda mota egiteko.
- c) Arau-hauste arinak errepikatzea.
- d) Urtebeteko epean, hiru arau-hauste arin egitea.

90. artikulua. Honako hauek arau-hauste oso larriak izanen dira:

- a) Hilerriko zerbitzuaren ohiko funtzionamendua galaraztea edo modu larri eta nabarmenean tratatzea, horren barnean egonik ehorzketa eskubidea Uharteko Udalaren baimenik gabe eskualdatzea eta baimena edo lizentzia behar duten jarduketak hura aitzinetik erdietsi gabe egitea.
- b) Hilerriko zerbitzua zer espazio publikotan egiten den, hura erabiltzea galaraztea.
- c) Hilerriko instalazioak eta elementuei modu larri eta nabarmenean kalte egitea.
- d) Jabari publikoko ondasunaren usurpatzea.

91. artikulua. Zehapenak.

Ordenantza honetan jasotzen diren arau-hausteak gisa honetara zehatuko dira:

-Arau-hauste arinek 750 eurorainoko isunak izanen dituzte zehapen.

-Arau-hauste larriek 1.500 eurorainoko isunak izanen dituzte zehapen.

-Arau-hauste oso larriek 3.000 eurorainoko isunak izanen dituzte zehapen.

92. artikulua. Ezartzen ahal diren zehapenak aparte utzirik, arau-hausteak ondasunak lehengoratu beharko ditu, eta egindako kalte-galera konponezinak ordaindu beharko ditu behar den ebazpenean finkatzen duen epean. Zehapenak ezartzeko eskumena duen organoak erabaki betearazlea hartuko du kalte-ordain horien zenbatekoa finkatzeko.

## **XEDAPEN GEHIGARRIA**

Udalaren Osoko Bilkurari dagokio kontzesioa ematea eta panteoiak eta panteoiak eraikitzeke lurzatiak erabiltzeke ehorzketa eskubidearen iraungipena adieraztea. Gainerakoetan, hilobien erabileraren gaineko ehorzketa eskubidearen kontzesioa, eskualdaketa eta iraungipena Alkatetzaren edo eskuordetutako organoaren ebazpenaren bidez onetsiko dira.

Halako batean sumatzen baldin bada egoera irregularrak daudela ehorzketa eskubidearen titulartasunari eta haren legez kanpoko eskualdaketari dagokionez ordenantza honetan edo hau baino lehenago gaia arautu duen araudiaren kontra, orduan egoera horiek iraungitzeko beharrezko diren jarduketa guztiak eginen dira, ofizioz egin ere; horrek, nolana ere, ehorzketa eskubidearen iraungipena eta, aldi berean, ukitutako ehorzketa unitatea(k) Uharte Udalarari itzultzea ekarriko du.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

1.-Ordenantza honen aitzinetik "betiereko" edo denbora mugagaberako (egia errateko, administrazio kontzesioak dira, lauretan hogeita hemeretzi urteko gehieneko eperako emandakoak) emandako kontzesioak diren bezala errespetatuko dira, haien ezaugarri teknikoei dagokienez.

Berriz, epeari dagokionez, bai ordenantzaren aitzinetik bai ondotik eman direnek 36. artikulua aipatzen duen lauretan hogeita hemeretzi urteko gehieneko iraupena izanen dute.

2.-Ordenantza honek indarra hartu baino lehen eman diren kontzesioek eman zirenean ehorzketa eskubideari buruz indarrean zegoen araudiaren menpe jarraituko dute. Hala ere, aplikatuko zaie ordenantzaren 39.2 artikuluan hilobia handitzeari buruz xedatzen dena eta 62. artikuluan hilobiaren hondamen edo abandonuagatik ehorzketa eskubidearen iraungipena xedatzen dena.

Kontzesio horien suntsiarazpenak ordenantzaren 63. artikuluan xedatutako ondorioak izanen ditu.

3.-Lehenengo araudiaren arabera kontzesioa duten lurzati, hilobi, kapera edo horma-hilobien erabiltzaile guztiek kontzesio bakoitzaren epea iragaten denean bururatuko dute horien erabilera, salbu eta jadanik iragan badira lauretan hogeita hemeretzi urte, hartaraino luzatu baita, aldi baterako, 2013ko urtarrilaren 1a arte, goiti-beheiti hori banan-banan jakinarazte aldera.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

1.-Indarrik gabe gelditu da Udal Hilerriaren 1902ko azaroaren 9ko Erregelamendua, baita Udal Hilerriaren Erregelamendua ere, 1997ko 69. Nafarroako Aldizkarian argitaratu zena ekainaren 9a, eta orobat ordenantza honi kontra egiten dioten maila bereko edo beheragoko udal xedapen guztiak.

**UDAL  
ETA BERTZELAKOEN TASAK**

**HILERRIKO**

**KONTZESIO,**

**ZERBITZU**

## **I. TITULUA**

### 1. artikulua.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 12. artikuluan eta hurrengoetan xedatu denari jarraikiz, Udal honek erabaki du tasa ezartzea udal hilerrian zerbitzu egiteagatik eta lanak egiteagatik.

## **II. TITULUA**

### **ZERGAPEKO EGINTZA**

### 2. artikulua.

Zergapeko egintza zerbitzu guztiak egitea da, erran nahi baita, ehorzteko espazioak esleitzea, haiek okupatzea, gorpuzkiak biltzea, hilerria zaintzea eta gainerako guztiak, Hilotzen gaineko osasuna arautzen duen urriaren 15eko 297/2001 Foru Dekretuaren aginduekin bat heldu badira eta alderdi batek eskaturik baimentzen ahal badira.

### 3. artikulua.

Kargari lorturiko zerbitzuak egiten hasten direnean sorrarazten da tasa eta hura ordaindu beharra sortzen, hau da, zerbitzuak eskatzen direnean.

## **III. TITULUA**

### **SUBJEKTU PASIBOA**

### 4. artikulua.

Subjektu pasibo eta zergapekoak dira baimena emateko edo zerbitzua egiteko eskatzen dutenak eta, halakorik bada, emandako baimenaren titularrak, baita oinordeko edo legatudunak ere, ordaindu gabeko tributu betebeharrei dagokienez, herentzia eskuratzeko legeria zibilak ezartzen duena aparte utzirik.

## **IV. TITULUA**

### **ERANTZULEAK**

### 5. artikulua.

1. Subjektu pasiboaren tributu betebeharren erantzule solidario izanen dira pertsona fisikoak eta juridikoak, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 42. artikuluan aipatzen direnak.

2. Erantzule subsidiarioak izanen dira sozietateetako administratzaile eta sindikoak, porrotak, lehiaketak, sozietateak eta oro har entitateak likidatzen dituztenak, Tributuei buruzko 58/2003 Lege Orokorraren 43. artikuluan xedatzen den kasuetarako eta irismenarekin.

## **V. TITULUA**

### **SALBUESPENAK**

6. artikulua.

Salbuetsirik egonen dira honelakoetan egiten diren zerbitzuak:

a) Ongintzako erakundeetatik heldu diren ehorzketetan,

b) Agintaritza judizialak agintzen dituen ehorzketetan.

## **VI. TITULUA**

### **ZERGA-OINARRIA**

7. artikulua.

Ordenantza honen tarifen eranskinean jasotako kopuruei jarraikiz, ondotik zehaztuko diren kontzeptuei dagozkien zerbitzu moten arabera finkatuko da zerga-oinarria:

1. epigrafea.-Hilobiak esleitzea eta kontzesioak berritzea.

2. epigrafea.-Ehorzketak, berrehorzketak eta ehorzteko eskubideak.

3. epigrafea.-Hobitik ateratzea, gorpuzkiak biltzea eta lekuz aldatzea.

## **TARIFAK ETA KUDEAKETA**

1. epigrafea.-Hilobiak esleitzea eta kontzesioak berritzea.

1.a. Lurreko hilobiak, 15 urterako: 350 euro.

1.b. Luzapena: 10 urterako: 450 euro.

1.c. Panteoiak: eskualdatutako panteoi bakoitzeko: 590,85 euro.

1.d. Panteoi hirukoitz eraiki gabeen kontzesioa, 50 urterako, 49 urteko luzapena dutenak: 4.777,35 euro.

1.e. Panteoi hirukoitz eraikien kontzesioa, 50 urterako, 49 urteko luzapenarekin: 7.178,60 euro.

1.f. Horma-hilobien kontzesioa, 15 urterako: 300 euro.

1.g. Luzapena: 10 urterako: 300 euro.

2. epigrafea:

-Ehorzketak, berrehorzketak eta ehorzteko eskubideak:

a) Panteoiak: 120,00.

b) Lurrean: 150,00.

c) Horma-hilobietan: 120,00.

-Errautsen ehorzketa:

a) Panteoietan: 75,00.

b) Lurrean: 75,00.

c) Horma-hilobian: 75,00.

d) Kolunbarioan: 75,00.

3. epigrafea.-Hobitik ateratzea, gorpuzkiak biltzea eta lekuz aldatzea:

Hobitik ateratzea, interesdunak eskatua, eta kolunbarioan sartzeta (idazkuna barne): 175,20 euro.

Hobitik ateratzea, interesdunak eskatua, eta gorpuzkinak berak eramatea: 77,25 euro.

Gorpuzkiak ehorzketatik hamar urtera biltzen ahalko dira, hilobien edukiera handitzeko.

8. artikulua.

1. Zenduen ahaideek kasurik egiten ez dietelako edozein motatako hilobiak eta, oro har, ehorzketarako tokiak hondamen edo abandonu egoeran agertzen baldin badira, horrek dakarren arrisku eta itxura txarrarekin, Udalak hura eraisten ahalko du, lehen kasuan, edo hondaturik edo abandonaturik dauden ezaugarri eta gauza guztiak kentzen ahalko ditu, bigarrenean, eta ez batean ez bertzean eskatzen ahalko zaio kalte-ordainik.

2. Gainera, iraungipena deklaritzen ahalko du eta Udalari itzuliko zaio hilobi baten eskuragarritasun osoa, honelako kasuetan:

a) Eraikuntza hondamen egoeran egoteagatik, hura partikularra denean.

Egoera hori eta iraungipena deklaratzeko Alkatetzak administrazio espedientea abiarazi beharko du. Eta

b) Hilobia abandonatzeagatik; halakotzat hartuko da hogeita hamar urte iragan badira zainketa epigrafe honi dagozkion eskubideen azken likidazioaren ordainketa egunetik. Kuota hauen ordainketa aitzinatua onartuko da egokia iruditzen zaien momentuan, kontuan harturik 1. epigrafearen alderako prebentzioaren 4. paragrafoan ezarritakoa.

3. 2. zenbakiko a) eta b) kasuetan, iraungitzeko administrazio espedienteak titularraren zitazioa izanen du, haren helbide ezaguna bada, eta ez bada, haren publizitatea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako ediktua bidez eta azken helbide ezagunari egindakoa; halaber, bi herrietan gehien zabaltzen diren egunkarietarikoa batean argitaratu beharko da, hogeita hamar eguneko epea emanez titularrak edo haren ahaideek sina dezaten sorrarazitako eskubideak ordaintzeko edo behar den konponketa egiteko konpromisoa. Agertzen badira espedientea etenik geldituko da; obrak egiteko epea iraganez gero konpromiso hori bete gabe, Tokiko Gobernu Batzarrak irungipena deklaratuko du.

4. Edozein hilobi motaren iraungipena deklaratuta, Udalaren eskura geldituko da, barnean ziren gorpuzkiak behar den kolunbariora eraman ondoan.

1. epigrafearen alderako prebentzioa.

1. Behar den tarifa eskuratzen den eskubidea ez da hertsia hertsian lurraren jabetza fisikoarena, baizik eta, kontzesioak irauten duen denboran espazio horietan ehortzirik gorpuzkoak atxikitzekoa, betiere hilobi mota horren titularrek ordaintzen badituzte finkaturiko eskubideak eta betetzen badituzte zainketari dagokion 8. epigrafean horri dagokionez ezarritako arauak.

2. Aldi baterako diren familia hilobietan ez da hilotzik edo gorpuzkirik ehorzten ahalko, epea betetzeko bost urte baino gutiago falta bada; halakoetan, gutienez ere hamar urteko alokairu aldia ordaindu beharko da, mugaegunetik hasita.

3. Komunitateko hilobian leku bat okupatzeko eskubidea 10 urterako berritzen ahalko da, behin bakarrik, alokairu aldia bukatzen den urtean, behar den tasa sorrarazirik.

Berritzea eskatu eta ordaindu hutsez, interesdunek espresuki onartzen dute hilotzean egin beharreko edozein mugimendu, hilobi berean berritu gabeko lekuei dagozkienak ehorztean, berritutako lekua baino beheratago badaude.

2 eta 3. epigrafeen alderako prebentzioa.

Epigrafe honen argigarri, erran beharra da hilotz edo gorpuzki bakoitzerako ulertu behar direla ehorzketak nahiz hobitik ateratzeak.

Tarifaz den bezainbatean, errautsen kutxatilen ehorzketa horma-hilobien esleipenaren pareko izanen da.

Kontzesioa aitzinetik berritzen ahalko da, mugaeguna baino lehen, alegia, baina mugaegunaren urte natural beraren barnean bakarrik.

9. artikulua.

Hilarrien mugimenduak, hilobiko idazkunak, hilobien soldadura eta gisako obrak egiteko, behar den lizentzia erdietsi beharko da, baina ez ordenantza honetako tarifetako bakarrik ere ordaintzea.

Sarkofagoak paratzeko, panteoiak eraiki, zaharberritu edo aldatzeko eta txosten teknikoa edo proiektua behar duten bertze lan batzuk egiteko, obra lizentzietarako tramite bera egin beharko da, eta ordenantza horren arabera likidatuko dira, baita Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren arabera ere.

## VII. TITULUA

### ***DEKLARAZIOA, LIKIDAZIOA ETA DIRU-SARRERA***

10. artikulua.

1. Subjektu pasiboek zerbitzuak egiteko eskatuko dute kasu bakoitzean.

Mausoleoak eta panteoiak eraikitzeko baimenaren eskariarekin batera, proiektua eta txostena aurkeztuko dira, profesional eskudunak baimenduak.

2. Zerbitzu bakoitza banaka likidatuko da; likidazioa zerbitzu egin ondoan jakinaraziko da, diru-sarrera zuzenean egin dadin Udalaren diru-kutxan Tributuei buruzko Lege Orokorrak aipatzen dituen moduan eta halabereko epeetan.

3. Tasa honen likidazioak behin betikotzat joko dira sorrarazpena ekarri duen zerbitzua edo jarduera egin ondoan.

## VIII. TITULUA

### ***ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK***

11. artikulua.

1. Tributu arloko arau-hausteei eta haien kalifikazioari dagokien orotan, baita arau-hauste horiei dagozkien zehapenei dagokien orotan ere, Tributuei buruzko Lege Orokorreko arauak aplikatuko dira.

2. Zehapenak ezarrita, ez dira inoiz bertan behera geldituko sorrarazitako kuoten likidazioa eta kobrantza.